

«Kalitatea ez da inoiz ustekabekoa; beti da adimenaren ahalegin baten emaitza»

John Ruskin

Dokumentu honen bidez zure inpresio-fitxategiak prestatzen lagundu nahi dizugu, haien kalitatea eta akabera hobetzeko eta fabrikazio-ustekabeak saihesteko.

Laguntza behar baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan!

Fitxategiak bidaltzeko modu egokia

BEREIZMENA

1:1 eskalako 150ppp-ko bereizmena erabiltzea gomendatzen dizugu.

72 ppp-tik behera, ez da fitxategirik onartuko.

FORMATUA

JPG eta PDF fitxategiak onartzen ditugu.

Diseinua guztiz bektoriala bada, hobe da pdf formatuan bidaltzea.

KOLOREA

CMYK fitxategiak soilik.

Mesedez, diseinuak Pantone koloreak baditu, bihur itzazu CMYK.

Kolore-akabera berezia lortu nahi baduzu, mesedez, eskaera egin aurretik eska iezaiguzu kolore froga bat (aparteko kostua izan ahal du). Hala egiten ez baduzu, inprimaketa gure ohiko profil-kolorimetrikoaren arabera egingo da.

Hondo lau beltzetarako, beltza indartzea gomendatzen dugu: C20 M20 Y20 K100

Oharra: kontuan izan inprimaturiko koloreak zure pantailan agertzen direnen desberdin ikusiko direla beti.

TIPOGRAFIK

Trazatuta ekarri!

Tipografia oso finak (Thin eta Ultra-thin) ez erabiltzea gomendatzen dugu. Koloreak migratzeko arriskua haunditu egiten da.

KOSKAK

Ezinbestekoak dira akabera bikaina lortzeko. Gehitu fitxategiari 5 cm alde bakoitzean.

Ez erabili ebaketa-markarik, hondo galduak irudia behar du beti, ez utzi zuri.

Ez erabili informazio erabilgarria edo logotipoak ebaketa-eremutik gertu.

FITXATEGIAK

Eta azkekenik, fitxategiak izendatzeko arau honi jarrai dezakezu

Proiektuaren izena_fitxategiaren azken neurria cmtan (koskarik gabe)

Adibidea: Popup Tous_400x320cm

Gomendio horiei jarraitzen badiezu, emaitza ona bermatuko duten fitxategiak ekarriko dizkiguzu!

Eskerrik Asko